

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Joseba Egibar Artolak, Euzko Abertzaleak Legebiltzar Taldeko bozeramaileak, indarrean dagoen Ganberako Erregelamenduz baliatuz, honako PREMIAZKO LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA aurkezten du, ospitaleko ordainketa partekatuari buruz.

ZIOA

Espainiako Gobernua ospitaleko ordainketa partekatu berria sartzeko asmotan dabil; ondorioz, ospitalizaturik gabeko paziente askok gaixotasun larriak edo kronikoak artatzeko sendagaiak eskuratzeko ordaindu behar izango dute.

Neurri horren bidez, Espainiako Gobernuaren asmoa zera da: tratamendu hauek behar dituzten gaixoei prezioaren ehuneko 10 ordaindu dezatela nahiz eta, sendagai bakoitzeko, 4,20 euroko gehienezko prezioa ezarri duen.

Ordainketa partekatua izango duten sendagaien zerrendan ageri dira bularreko, biriketako, giltzurrunetako, buruko eta prostatako minbiziei aurre egiteko medikamentuak. Baita ere hainbat motatako leuzemen eta linfomen kontrako tratamenduak; C eta B hepatitisa duten gaixoei agindutako eta umeek arnasketako birusak ekiditeko hainbat antibiral. Beste botika batzuk artritisa tratatzeko; osteoporosiarentzako; asmaren kontrolerako; adinarekin lotutako makula-endeikapenarentzako; beherakoarentzako; esklerosi anitzarentzako eta hala nola laktosarekiko intolerantzia antzemateko testentzako.

Ordainketa partekatu berri hori Nazio Osasun eta Farmazia Sistemaren Zerbitzuen Oinarrizko Sailaren Zuzendaritza Nagusiak onartu du, 2013ko irailaren 10eko ebazpenean. Horren bidez, neurri hori datorren urriaren 1ean sartuko da indarrean.

A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

Joseba Egibar Artola, portavoz del Grupo Parlamentario Nacionalistas Vascos, al amparo del vigente Reglamento de la Cámara, presenta para su debate en Pleno la siguiente PROPOSICIÓN NO DE LEY URGENTE, relativa al copago hospitalario.

JUSTIFICACIÓN

El Gobierno de España pretende introducir un nuevo copago hospitalario por el cual un gran número de medicamentos para el tratamiento de enfermedades graves o crónicas en pacientes no hospitalizados pasarán a estar sujetos a copago.

El Gobierno de España con esta medida pretende que las personas que precisen de estos tratamientos abonen un 10 por ciento del precio de los mismos, con un máximo de 4,20 euros por medicamento.

En la lista de fármacos sujetos a copago se encuentran tratamientos contra el cáncer de mama, el cáncer de pulmón, el cáncer renal, los tumores cerebrales y el cáncer de próstata. También incluye tratamientos contra diferentes tipos de leucemias y linfomas; y varios antivirales, indicados para pacientes con hepatitis C, hepatitis B y prevención de virus respiratorios en niños. Otros fármacos para tratar varias artritis; para la osteoporosis; psoriasis; para el control del asma; para la degeneración macular asociada a la edad; para la diarrea; para la esclerosis múltiple y así como los test para detectar la intolerancia a la lactosa.

Según consta en la propia Resolución de 10 de septiembre de 2013 de la Dirección General de Cartera Básica de Servicios del Sistema Nacional de Salud y Farmacia, por medio de la cual se aprueba este nuevo copago, este último producirá efectos a partir del 1 de octubre próximo.



Haatik, eta denon harridurarako, iragan asteko ostegunean, irailaren 10ean jakin izan dugu horren berri; hain zuzen ere, Estatuko Aldizkari Ofizialean (EAOn) argitaratu zen egunean. Hau da, neurri hori onartu eta argitaratu da eskumena duten erkidegoetako organoei aurretik ezer jakinarazi gabe.

Espainiako Gobernuaren aldetik erabateko errespetu eta begirune falta da gure autogobernuarekiko, gure Autonomiadun Erkidegoaren osasun agintariekiko eta, azken finean, Nazio Osasun Sistemaren funtzionamenduarekiko.

Gure iritziz neurri hori bidegabekoa da eta gaixotasun kroniko larriak dituzten pertsonak larriki kaltetzen ditu. Gainera, ekitate printzipioaren aurka doa neurria, izan ere, gaixotasun batzuegan eragina baitu eta, aldiz, beste batzuegan eraginik ez du. Baita patologia bereko pertsonen kasuan ere, bakoitzak behar duen tratamenduaren arabera, pertsona batzuk botikak ordaintzera behartuko dituelako eta beste batzuk, ordea, ez.

Horregatik guztiagatik, uste dugu beste behin ere Espainiako Gobernuak inongo adostasunik gabeko neurriak inposatu nahi dituela, kontsultatu gabe eta sikiera Espainiako Osasun Sistemako lurraldearteko Kontseilua osatzen duten Osasun sailburuei horren berri eman gabe; ezta gure osasun sistemaren iraunkortasuna bermatze aldera neurri horiek ekarriko duten ustezko onurak zeintzuk izango diren inguruan benetako oinarririk gabe.

Arrazoi horiek guztiak medio eta dagokigun erantzukizunagatik ezin dugu onartu lortutako guztia inposatutako neurrien bitartez degradatzea. Izan ere, neurri horiek ez dira gure erakunde-ordezkariekin negoziatu, ezta adostu ere; gure eskumenak ez dituzte errespetatzen eta, okerrean, gaixotasunak dituzten pertsonen osasun-arreta zuzenean kaltetetzen dute.

Azaldutakoa aintzat harturik, Osoko Bilkuran PREMIAZ eztabaidatua izan dadin, honako Legez Besteko Proposamena aurkezten da:

Sin embargo, para asombro de todos, nos enteramos de su aprobación el jueves de la semana pasada, 19 de septiembre, fecha en la que se publicó en el Boletín Oficial del Estado (BOE). Es decir, se ha aprobado y publicado esta medida sin previo aviso a los órganos competentes autonómicos.

Es una absoluta falta de respeto y consideración por parte del Gobierno de España hacia nuestro autogobierno, hacia las autoridades sanitarias de nuestra Comunidad Autónoma y, en definitiva, al propio funcionamiento de los órganos del SNS.

En nuestra opinión, esta medida es injusta y perjudica gravemente a las personas con enfermedades crónicas graves. Además, es una medida que va en contra del principio de equidad ya que afecta a unas enfermedades sí y a otras no; incluso en el caso de personas con la misma patología, en función del tratamiento que requiera cada caso, algunas personas pueden verse obligadas a pagar por los fármacos mientras que otras no.

Por todo ello, entendemos que una vez más desde el Gobierno Español se quieren imponer medidas sin ningún tipo de consenso, sin consultarlo y ni siquiera comunicárselo a los Consejeros del ámbito de la Salud que integran el CISNS y sin una base real sobre los pretendidos beneficios que dichas medidas van a generar para el sostenimiento de nuestro sistema sanitario.

Por estos motivos y por sentido de la responsabilidad no podemos permitir que todo lo conseguido se degrade por medio de decisiones impuestas, que no han sido ni negociadas ni consensuadas con nuestros representantes institucionales, ignorando además completamente nuestras competencias y perjudicando directamente la calidad de la atención sanitaria de las personas enfermas.

Por lo expuesto se presenta para su debate URGENTE en Pleno, la siguiente Proposición No de Ley:



Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen dio indarririk gabe utzi dezala 2013ko irailaren 10eko Nazio Osasun eta Farmazia Sistemaren Oinarriko Zerbitzuen Sailaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpena, zeinak Nazio Osasun Sistemaren botika-prestazioaren baitan dauden sendagaien finantzazioaren baldintzak aldatzen dituen, erabiltzailearen aportazioa esleitzearen bidez.

PREMIAZKOTASUNAREN ARRAZOIA

Iragan astean, irailaren 19an, aurretiazko jakinarazpenik gabe, Autonomia Erkidegoetako osasun arloko agintariekin –horien artean Euskal Autonomia Erkidegokoekin- kontsultatu eta negoziatu gabe, Espainiako Gobernuak Ebazpen bat onartu du. Ebazpen horrek Osasun Nazio Sistemaren botika-prestazioen baitan dauden sendagaien finantzazio-baldintzak aldatzen ditu, ordainketa partekatu berri bat inposatuz; kasu honetan, ospitalean ez dauden pazienteei zuzenduta.

Neurri honek Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremua inbaditzen du, gaixotasun kroniko eta larriak dituztenak bidegabeki kaltetzen ditu, ekitate printzipioa urratzen du eta betetzeko zaila izango den disuasiorako eta diru-bilketarako asmoa dauka. Izan ere, Ebazpenak ezartzen du ordainketa partekatu berri hau urriaren 1etik aurrera sartuko dela indarrean. Beraz, teknikoki ezinezkoa da neurri hori Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetan eta osasun zentroetan indarrean jartzea.

Gauzak horrela eta ospitaleko ordainketa partekatu berria indarrean sartzeko egun gutxi geratzen direnean, Euzko Abertzaleak Legebiltzar Taldeak honako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA aurkeztzen du Bilkuran Premiaz eztabaidatua izan dadin.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno de España a dejar sin efecto la Resolución de 10 de septiembre de 2013, de la Dirección General de Cartera Básica de Servicios del Sistema Nacional de Salud y Farmacia, por la que se procede a modificar las condiciones de financiación de medicamentos incluidos en la prestación farmacéutica del Sistema Nacional de Salud mediante la asignación de aportación del usuario.

JUSTIFICACION DE LA URGENCIA

La semana pasada, el día 19 de septiembre, sin previo aviso, sin consultarlo ni negociarlo con las autoridades sanitarias de las Comunidades Autónomas, entre ellas las vascas, el Gobierno de España ha aprobado una Resolución por la que se modifican las condiciones de financiación de medicamentos incluidos en la prestación farmacéutica del SNS imponiendo un nuevo copago, en este caso, destinado a pacientes no hospitalizados.

Dicha medida, invade el ámbito competencial de la Comunidad Autónoma de Euskadi, perjudica injustamente a pacientes con enfermedades crónicas y graves, atenta contra el principio de equidad y tiene un afán disuasorio y recaudatorio que difícilmente va a poder cumplir. De hecho, la Resolución establece que este nuevo copago tendrá efectos a partir del 1 de octubre, por lo que técnicamente es absolutamente imposible que se pueda aplicar esta medida en los Hospitales y en los centros de salud de Euskadi.

Por lo tanto, y ante el hecho de que no faltan más que unos pocos días para que empiece a aplicarse el nuevo copago hospitalario, Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos presenta para su debate Urgente en Pleno, esta PROPOSICIÓN NO DE LEY.

Gasteizen, 2013ko irailaren 24ean

JOSEBA EGIBAR ARTOLA